

DEBA

NEGUA - 90

17. Zenbakia



- **PABLO SOROZABAL MAISUA**
- **LOS BARRIOS DE ELORRIAGA Y MARDARI**
- **EN DEFENSA DEL PUENTE DE MENDARO**

PABLO SOROZABAL MAISUA; ESKERRONEKO BI HIZKI EZTI ETA GAZI... ZU MIRESTEKO

*Bai al dakizu, maisu,
loreak zergatik
agertzen diren beti
margoz apaindurik?*

*Bai al dakizu, maisu,
loreak zergatik
agertu diren beti apaindurik?
Ta bere usai goxo
ederra emanik?*

Jakinazu ba, maisu, dela zuregatik.

Debar batek Madrid-era bidaiaren bat duenean gutxienik bi eginkizun badaramatza berarekin: bata, han bizi den Debar multzoa bisitatzea; eta bigarrena, karteldegia begiztatzea, zeren ziur egon Pablo Sorozabal-en aztarna tokiren batetik agertuko zaizula.

Horixe bera gertatu zitzaidan joan zen Azaroan kapitalen kapitalera nuen bidai bat zela medio. Bisitatze-koak? Askok, zeren halakoxe ordezkari bat dugu Debarrok Madrid aldean. Pablo Sorozabal-en presentzia non? Urrutira joan gabe, Diputatu Kongresoaren atze-
kaldean dagoen "Teatro Lírico Nacional La Zarzuela" delakoan.

Jakina nuen liburuetatik 1.934. urteko Azaroaren 13an estrenatu zela "La del manojo de rosas" sainete lirikoa "Fuencarral" aretoan. Liburuxka Francisco Ramos de Castro eta Anselmo Carreño-rena, musika Pablo Sorozabal-ena. Baina kontsultatutako liburuak bazuen beste pasarte deigarri bat: "La del manojo de rosas" liburuxka Pablo Sorozabal-engana iritsi zen beste konpositore batzuk errefuxatu ondoren, ez baizuten kontsideratzen egungoa sainete lirikoa". Pablo Sorozabal-ek, ordea, egungo partitura batetaz jantzen asmatu zuen, eta ondorioa halakoxea izan zen, arrakatsua. Baina beste kezka bat ere banuen, hain zuzen ere VI. Debako Uda Musikaldian, Jose Luis Ansorena musikalarik ospatsuak eginiko galdera: "Pablo Sorozabal-en heriotzarekin zarzuelari heriotza iritsi zaio?". Eta hirugarrena, Pablo Sorozabal Serrano, bere semeak, idatzitakoa: "Nire ustez akats haundi bat izan zuen nire aitak zarzuelen musikagintzara pasa zenean, akats bat baino gehiago oraindik, traizio bat bere ahalmen artistikoei; are eta gehiago "Adiós a la bohemia" kendu ezker, beste denak aurkeztu ezinezkoak direnean". Hiru motibagarri zehatz hortxe nituen aurrez aurre, eta garrantzizkoena, Pablo Sorozabal-en lehen zarzuela bat ikustatzeko gogo aspaldidanik nuela, ale-



gia, "La del manojo de rosas" izan zen hori. Miguel Roa maisuaren zuzendaritzapean Madrid-ko orkestra sinfonikoa, 38 lagun eskenatokian Emilio Sagi-ren agindupean, dena prest, eta Debar bat zerrenda amaigabea, Jabi Ulazia, eskenako zuzendariaren laguntzaile gisa. Azaroaren 2-tik Abenduaren 2-ra errepresentatuko dute, sarrerak bost egun lehenago eta kola luzeak gordez lor ditzakezu, lortu ditugu, eta antzokian gaude. Lehen inpresioa, lan guztiz osatu batena da: antzeppen aldetik zehatza, ongi kokatua, eskenatokia Chamberí auzoko edozein kaleri inbidia emateko bezalakoa, detallera guztia. Sainete liriko dramatizatua dela esango nuke errepresentazioa aurrera doan heinean; gaia garai hartakoa da, ez dago zalantzarik, baina guztioi ere gustagarri gertatzen zaiguna. Paper bat dago guztien gainetik ateratzen zaiguna: "Espasa" delako zerbitzaile-kobratzailearena da; Raul Sender-ek du paper hori. "Ascensión", protagonistaren papera ere lortua dago, guztiak ere neurri haundi bat ematen dutelarik; baina musikak altxatzen du errepresentazioa, lehen partearen haseran, bigarrenaren haseran baita, zein obran zehar orkestra sinfonikoak Pablo Sorozabal-en musika herrikoi, apal, goxo eta sentikorra aireatu zuenean, beste aire bat bizitu izan genuen "Teatro"an.

"La del manojo de rosas" sainete lirikoa bestalde, guztiz madrildarra dugu: pertsonaiak; hauek darabilkiten hizkuntza, guztiz kastizoa, Madrid-ko auzo kontatu batzutan oraindik ere hitzegiten dena; eskenatokia bera, hiru solairu eta beheko gelek; "Honolulu" kafea;

bebarrua eta honen ondoan bizikleta konpontzailea; kafea eta bebarruaren artean, noski, loraz apainduriko "La del manojo de rosas" denda dagoelarik. Musika bera ere guztiz egokia, madrildarra eta herrikoaia, nahiz eta Pablo Sorozabal, donostiar batek, egina izan, horrek guztiz baieztatu zidan Pablari grabatutako el-karrizketa batetan entzuna: "Lan bat egiterakoan, dena jartzen dut, bihotz osoa". Niri ere inpresio berbera eman zidan obra bere osotasunean ikus eta entzuterakoan, antzerki munduan ohizkoak diren aurkezpena, konfliktua eta erabakia guztiz lotuak bait daude musika arloan ere. Benetan madrildar madrildar direnek, betidanikoe, alegia, eskertuta egon behar lukete Sorozabalek utzi zieten altxor honengaitik besterik gabe. Madrildarrak aipatu ditut, baina oraintxe gogoratzen dut alboan izan genituen senar-emazteak katalanak genituela, eta haiek ere benetan disfrutatu zutela; beraz, eskerrona zabaltzen bada, hobe.



Sorozabal-en zazpigarren obra lirikoa da "La del manojo de rosas". 1.931. urtarrilleko 27an "Katuska" operetarekin hasi eta oraindik estreinatzeko dagoen "Juan Joxe" drama lirikorarte, 24 lan daude guztira, horien artean "Adiós a la bohemia" Pio Barojaren liburukarekin osatutakoa, "La Tabernera del puerto", "Black el payaso", "Don Manolito", "Pepita Jiménez" eta azkenik "Juan Joxe". Oraindik gogoratzen ditut Pablo Sorozabal-en hitz batzuk, esanaz: "Juan Joxe ez dugu estrenatu, lan bakoitzari bere inportantzia eman behar zaiolako, bere garrantzia, eta jokaera hau ikusten ez nuenez, ez dugu estreinatuta, ez bait nago ados musikagintzan gertatzen ari den dekadentziarekin".

Hitz hauek 1.974. urteko Urtarrillaren 1-ean grabatutakoak dira; urte berriak zoriondu eta bide batez, Gernikaren bertsio orkestatua, 7 liederrak eta bariazio sinfonikoak berrargitaratu zirenean. Omenaldietariko bat hortxe legoke, 11 urtetan zehar egituraturiko lana estrenatzean, maisuak eskatzen zituen baldintzapean, tamalgarria baita 1.968. urtetik bukatua dagoen lan bat kutxa batetan gordeta edukitzea. Hori baino gehiago merezi duelakoan nago. Asmoen artean Pablo Sorozabal-ek bazuen gogo berezi bat: Joshemari Usandizagaren obrak berriro grabatzeko, denak, osorik, begirune haundia bait zion donostiarrari. Beste asmo bat gehiago tintaontzirako.

Hirugarren kalez kale, Debako Martxa, egin zigun maisuak; kamarako musika, ahots nahasiatarako kantak, abesbatza eta txisturako obrak, pianorako kantak, liederrak, ahots eta orkestrarako kantak, orkestra eta abesbatzentzako obrak, orkestrarentzako obrak, piano-rako musika eta filmeetako musikak konposatu zituen besteak beste. Lehen aipatu bezala, 24 obra liriko konposatu zituen, eta horietatik 10 argitaratuak daude beste hainbat disketan, hauetxek hain zuzen: "Adiós a la bohemia", "Black el payaso", "Los burladores", "Don Manolito", "La eterna canción", "Katuska", "La del manojo de rosas", "Las de Caín", "Pepita Jiménez" eta "La tabernera del puerto".

Aukera polita, beraz, Abendu honetan, azkenik ere, bere izen-abizena daraman pasealeku zoragarri horretan eskultura jartzeaz gain, Sorozabalen irudia lirismo apur batez gogoratzeko, udazken-negua guztiz aproposa baita horretarako, udako berotasunekin "Kanta Debarrak gure kanta...." berriro ere hemen-txe izango bait dugu gero. Eta bukatzeko, Pablo beraren hitz batzuk, 1.975. urteari zer eskatzen zion galde-tu ziotenean honela erantzun bait zuen: "Lirismo apur bat, horixe eskatzen diot, justizia, justizia asko eta pakea, zoriontasuna, eta alda daitezela, alda gaitzela, baina hoberako, beti hoberako"! Ea datorren urtean Pablo Sorozabalek opatakoak betetzen diren. Hala bedi!

ALBERTO GORRITIBERIA
(1.990eko Azaroaren 22an)

